

Isidro Juaristi Alberdi
Muxika, Bizkaia (1901)

Aurkibidea

Biografia

1901. urteko San Isidro egunean sortu zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko Antxustietako baserrian. Bere aita Gerrikaitzekoa zuen, Zabale baserrikoa; eta ama, Mallabikoa. 64 urterekin Zornotzara joan zen bizitzen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da. Emaztea Gerrikaitzekoa zuen. Ibarruriko antzinako kontuak kontatzen ditu.

Zintak

MUX-042

- **Proiektua:** Zornotzako aditz-eren karinkara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Data:** 1988-08-04
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Emalea:** Amorebieta-Etxanoko Udala

Pasarteak

1. 1901. urtean Ajurian jaioa eta bizitakoa

- **Erref:** MUX-042/002
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>1901. urteko San Isidro egunean jaio zen. Jubilatu ostean joan zen Zornotzara bizitzen. Ibarruriko Ajuria auzoko Antxustietan baserrian jaio zen. Bere emaztea Gerrikaitzekoa zen. Bere aita Gerrikaitzeko Anbre auzokoa zen eta ama Mallabikoa.</p>

Transkripzioa

- Zein dan zure izena eta apellidu bixek.
- Isidro Juaristi Alberdi.
- Isidro Juaristi Alberdi. Eta noiz jaixoa zara zu, zein urtetan?
- "Mil nobezientos uno"an maietzien hamabosgarren, goizeko seiretan.
- Edarto. Osake, milla bederatzirehun eta batien jaixoa zara zu.
- "Veinti uno"ko kinttoa.
- Eta oin nun bizi zara?
- Ni hamentxe, trabesian Otaegi. "Calle Otaegi", hortxe paso a nibelen ondoan, pelukerixe deukogu kanto-kantoién han, "Hermanas Juaristis" pelukerixe, errotulua fijetan bazara, hantxe primer pisoan, lelengoko pisuen.
- Eta nun jaidxoa zara zu? Nun jaidxoa?
- Ni "Aidxuridxen" (Ajuria) Antxustietan etxiek izena.
- Ajuria.
- Ajurias, baia erderaz da "Ajurias", "Aidxuridxe" euskeraz. Ibarruriko barriadié.
- Ibarrurikoa zara zu orduen, jaidxotez.
- Jaidxottez Ibarrurikoa, baia "Barrio Ajurias".
- Eta zure emaztie nungoa da jaidxottez.
- Gerrikaizkoa. Arbazegi-Gerrikaitz.
- Arbaizegi-Gerrikaizkoa.
- Eta zure aitte nun jaidxoa da?
- Nire aitte Zabalien, Anbre baiño harantzatzuau, Zabale esaten otsien kaserioan, etxien.
- Zein herrixen edo zein barridxotan?
- Ba Gerrikaitzen.
- Gerrikaizten, Gerrikaizkoa da zure aitte. Ta zure ama?
- Nire ama Mallubikoa.
- Mallubikoa, edo Mallabi. Zelan...
- Mallabi, Mallabi eta "Madxebi". Erminntie San Juan deko eurrien, etxe esan gure dot /quot/ afanekoa, San Martin Mallabin.
- Ta bueno zu Zornotzara bizitten zemat denpora daroazu Zornotzan bizitten?
- Hogeta lau urte ontxe zemendidxen paseuko diez. Ontxe oktubrien, nobienbrien.

- Osake, hogeï ta lau urte Zornotzan herridixen bertan bizitzen daroazuz. Eta Zornotzar bizitten etorri aurretik nun bizi ziñen?
- Hantxe! Ibarrurin.
- Ibarrurin denpora guztixen.
- Hiruroge ta bi urtien.
- Hiruroge ta bi urtien Ibarrurin. Ta oin ya hogeta lau urte Zornotzan bertan.

2. Gaztetako San Juanak

- **Erref:** MUX-042/003
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Lehen Ibarrurin erromeria itzelak egiten ziren. Ibarruri, Gorozika zein Maumako mezak abade berak ematen ditu. Ajuria auzoko jaiak San Isidro eta San Juan dira. Ibarrurikoak Andra Mari eta San Pedro. Berak 20 urte zituenean, inguruko herri guztietako jendea hurbiltzen zen San Juanetara.</p>

Transkripzioa

- Aber Isidro, ta zuk ze iritzi dekozu geur egungo Ibarruridxaz?
- Nik Ibarruridxaz ez dekot nik ez naz...
- Oin Ibarrurin zer, lehengo Ibarrurin zer? lehengo Ibarrurin ambiente gehixau egoten zan?
- Zatixe! Ai esan gure dozu /guruzu/ zelan bizitzen zan jentie. Lehen eitten zan erromeridxe, eitten zan dibersiño itzela, ta oin ezebez. Danak oin eskape dauie: oin ez soiñurik, ez mezarik be kasik ez, ezebez. Abade batek eitten dotsu Gorozikeko, Iborriko (Ibarruriko), Maumeko, Aidxudxeko (Ajuriako)... danak. Han asko eskapeute, oin ya kasik erdidxek.
- Jaidxek-eta ez die eitten geur egun Ibarrurin?
- Bai, Ibarrurin eingo dittuez. Baia guk barriadan San Juan deku ta San Isidro, San Juan ta San Isidro [...] santu [...]. Ta Iborrin Andra Maridxe eta San Pedro. Baia oin, San Juanetan be ez zala egon ezebez kasi esan ostien: jokulari batzuk egon ziela, premidxuek Gorozikera atara zittuela, besterik ez. Bolaka ta pelotaka, frontoie eindde dau, baia iñor bez esan eban, esan eben, ni neu ez nitzen joan, baiña.
- Eta zuk hogeï urte euki zeñuzenien, ze ambiente egoten zan Ibarrurin?
- Hogeï urte nik neukenien, San Juanetan-ta han erromeridxe ta jente alegrie. Muxiketik, Goroziketik, ta Maumetik, Gerrikaiztik, Albiztik, Mendatetik, "todo eso" dana hori, zona guztidxe egoten zan San Juanatan, San Juan egune, bigarrenien, hirugarrenien. Oin iñor bez, oin iñor bez. Gabaz, gabaz dau oin.
- Ta ze lehen gabaz be, gabaz be ez zan egoten jaixe?
- Ez, hamabixek, gabeko hamabixetan fuera!

3. Abadearen salaketa faltsua tabernariari

- **Erref:** MUX-042/004
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Ajuriako San Juanetan musika gaueko 12ak arte egoten zen alkatearen baimenarekin. Baina behin, abadeak tabernaria salatu zuen, baina salaketa faltsua izan zen. Gero, gerra etorri zen eta abade hori betiko gaixotu zen.</p>

4. Ibarruriko elizara ortozik; Erretxina, petrolioa, argizaria eta kandela

- **Erref:** MUX-042/005
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:09:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ibarruritarrak baserririk bizi ziren gehienbat. Jendeak ez zuen behar gauza askorik bizitzeko. Bere jaunartze egunean, Ibarruriko elizaldera arte ortozik joan zen, abarketak bertan jantzi eta erantsita. Argia erretxin grisarekin, petrolioarekin, argizariarekin eta kandelarekin egiten zuten. Kandela aurrerapen handitzat zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta jentie Ibarrurin eta Ajuriasen-eta zertara dediketan zan? diñot baserriittik bizi zan edo...?
- Baserrittik! Han joaten bazien batzuk Bilbora-edo fabriken batera-edo, ba eskapetan baeben banakan batek ba biherrik ez dekonan batek edo biher eitteko moduen dauenan batek, ostantzien bestiek lurrien han, han [hutsei zerrike] tragetan, errementetan.
- Ta gitxi ataraten zan.
- Gitxi? ni eindde nau "primera comuni6n" abarketa zinttak ein, lotu eta galtzabe modu batzuk barrure sartun ta ortozik kilometo bi mendiritten joanda, ha handik Ajuriastik Iborriko elizaldera. Han abarketak erantsi ta jantzi ta atzera ipiñi ta etxera ortozik, ortozik! Argixe erretxin griseaz, gero petrolixuaz, ta gero argizaizaz, ta gero kandelie. Ene! kandelie izen zan, ene, bo kandelie! kandelie eta petrolixoa. Ta gero ipiñi eban hori beste zer hori ta gero hau ta holantxik. Ezer ezin ikusitte, ezer ezien.

5. Lehen baino bizimodu hobea

- **Erref:** MUX-042/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Grabazio egin zitzaionean, lehen baino bizimodu hobea zuela dio Isidro. Nahiz eta eskolarik ez izan jendearekin berba egiteko sekula ez du izan arazorik.</p>

6. Frontera joatetik libratu zen

- **Erref:** MUX-042/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra sasoian, jeneralarekin berba eginda libratu zen frontera joatetik. Inguruko jendea, ostera, alde batetik bestera ibili zen astoa eta idi-uztarria hartuta.</p>

7. Soldadutzara arte ez zekien gaztelaniaz

- **Erref:** MUX-042/010
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:20:07. **Bukatu:** 00:24:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Jende gehienak ez zekien gaztelaniaz. Isidro bera, soldadutzara joan aurretik, urtebete egon zen Karrantzan, eta bertan ikasi zuen zer edo zer, ordura arte ez zekien eta. Soldadutzara hiru egun berandu joan zen eta luzatu egin zioten egonaldia. Baina sekula ez ei zuen egin guardiarik. kapitainak begiko zuen. Oso bizkorra eta trebea zen. Bertako istorio bat kontatzen du. Euskaldunek fama ona zuten, langile fama soldadutzan zein Ameriketan.</p>

8. Abadeen eta emakumeen aginpidea

- **Erref:** MUX-042/012
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:27:34. **Bukatu:** 00:29:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Lehen abadeek eta emakumeek gehiago agintzen zutela dio. Jesukristok kendu zion emakumeari aginpidea.</p>

9. Bizimoduko aldaketak

- **Erref:** MUX-042/014
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:33:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Nagusia izanda, sasoi horretako bizimodua egin behar dela uste du Isidro. 1926. urtetik, Logroñetik, ez zi du ardorik edan. Soldadutza inongo dirurik jaso gabe egin zuen. Kapitainak begiko zuen eta gaztelaniaz ere moldatzen ikasi zuen bertan.</p>

10. Aditz-erak I

- **Erref:** MUX-042/016
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:37:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aditz-morfologiako galderak. Elkarriketatzailerak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "te he visto", "me han visto", "me habeis visto".</p>

11. Aditz-erak II

- **Erref:** MUX-042/018
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:37:34. **Bukatu:** 00:40:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aditz-morfologiako galderak. Elkarriketatzailerak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "el te ha visto a ti", "ellos te han visto a ti", "yo os he visto a vosotros". Ostean, euskarazko esaldiak aditz barik esan zaizkio berak aditzak jar ditzan: "Nik zuori ikusi _____", "berak gu ikusi _____", "zuek gu ikusi _____"....</p>

12. Aditz-erak III

- **Erref:** MUX-042/019
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:40:25. **Bukatu:** 00:42:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aditz-morfologiako galderak. Elkarriketatzailerak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "Yo le he traído a el un libro", "Nosotros a vosotros os hemos visto"; "nik hi ikusi hoat", "hik ni ikusi nok"</p>

13. Aditz-erak IV

- **Erref:** MUX-042/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:42:31. **Bukatu:** 00:45:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan: "El ayer me vio a mi", "el me vio ayer", "ellos me vieron a mi", "yo te vi a ti", "ayer el te vio ayer"</p>

14. Aditz-erak V

- **Erref:** MUX-042/022
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:45:27. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Aditz-morfologiako galderak. Elkarrizketatzaileak erdarazko galdera batzuk ematen dizkio itzul ditzan.</p>

15. Hondartza zer zenik ere ez

- **Erref:** MUX-042/024
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:48:08. **Bukatu:** 00:50:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Gaztetan ez ziren hondartzara joaten, baserriko lanak egin behar izaten ziren-eta. Mundakako hondartzatik obretarako harea ateratzen zutela du gogoan. Lehen hondartzak hutsik egoten ziren.</p>

16. Sekula bizikletan ibili barik

- **Erref:** MUX-042/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Sekula ez du errekan igeri egin Ajurian erreka txikiak baitaude. Bizikletan ere bi bider baino ez da ibili.</p>

Juaristi Alberdi, Isidro | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com